

2006ko irailaren 21a • XXVI. urtea



Amaia Pando lan orientatzaile berria

03

Cederna-Garalur elkarteko lan orientatzaile berria Baztan-Bida-soa eta Leitzaldean: «Lantegien premiak eta langileen prestakuntza uztartzen saiatzen gara».



Jon Irazoki Saria Gure txokoarentzat

29

Jon Irazoki zenaren omenez Beran antolatutako XI. txapelketa etxeko taldeak, Gure Txokoak irabazi zuen. Orain, ligan hasiak dira eskualdeko futbol taldeak.



04

2006-07 IKASTURTEA HASI DA

Haur Hezkuntzan ikasle kopuruak goiti egin du azken lau urteetan

Ongi eginak diren gauzak gustoko ditugu

Laguntza eman nahi dugu:

- Lanpostuak sortuz
- Dauden elkarteak lagunduz
- Industrialdea sortzen lagunduz
- Industria ekimenak bultzatuz
- Kirola babestuz
- Zuen iritziak entzunez

babeslea:




BAZTANGO MAGNA S&L

1945az geroztik

MAGNA

MAGNESITAS NAVARRAS, S.A.

E-mail: baztan@maglur.org



ESKAINTZAK

% 20-30-40ko deskontu bereziak
erakusketako altzari eta osagarrietan



ORDOKI
altzariak

Larunbat goiz eta
arratsaldez irekia

ERAKUSKETA: Bittiria 26 • SALTOKIA: Plaza Zaharra 27 • Tfnoa: 948 63 77 80 • LESAKA

DATUAK...

• Amaia Pando Aramendi, 26 urteko psikologo beratarra da Cederna-Garalur elkarteko Baztan-Bidasoa eta Leitzaldeko lan orientatzaile berria.

• Urtebetez zerbitzu hau geldirik egon da, baina abuztuaren 1etik lanean ari da Amaia. Alkaiagan Cedernak duen bulegotik abiatuta, Doneztebeko Enplegu Bulegoan eta Baztan eta Leitzako udaletxetara ere joaten da.

• Berekin harremanean jartzeko 619 829289 telefonoetara deitu behar da.



Amaia PANDO Eskualdeko lan orientatzaile berria

ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

«Lantegien premiak eta langileen prestakuntza uztartu nahi ditugu»

Aitor AROTZENA

Zein da eskualdeko lan orientatzaile gisara egiten duzun lana?

Cederna-Garalur elkarte pribatua da, baina udalekin elkarlan estua dugu. Nafarroako Enplegu Zerbitzuak ere diruz laguntzen du. Helburu nagusia lanik gabe dagoen jendea atenditzea da edo lanean ari dena, baina bere perfilarengatik bertze lanpostu bat lortu nahi duena. Bertze aldetik, enpresetatik ere lan eskaintzak ailegatzen zaizkigu eta eskaintza eta eskaera uztartzen saiatu behar dugu. Hemengo jendearentzat lanerako aukerak hemen aurkitzen lagundu nahi dugu.

Helburu horrekin, prestakuntza ikastaroak eta bertze zenbait ekimen gauzatzen dituzue...

Beti saiatzen gara formakuntza eta baliabideak ematen. Adibidez, institutuetan sartu eta formakuntza tailerrak egiten ditugu, gazteei lan munduko informazioa emateko. Emakumeekin ere lan egiten dugu, normalki hartzen duten orientazioa aldatzen saiatzen gara. Izan ere, emakumeek letretara edo humanitate inguruko formakuntzara jotzen dute, baina es-

«Emakumeek letretara edo humanitate inguruko ikasketetara jotzen dute, baina eskualdeko lan-merkatuak ez du hori eskatzen»

kualdeko lan-merkatuak ez du hori eskatzen. Formakuntza teknikoak indar gehiago dauka, hori eskatzen dute enpresetatik. Orain, Empleate proiektuarekin buru-belarri sartuak gaude: honen helburua, enpresa edo lantegi bat sortzeko ideia duen jendeari formakuntza ematea da. Hiru ikastaro emanen ditugu, lehenbizikoa negozio-ideiak identifikatzeko; bertzea, enpresa horrerik hasiera emateko eta azkena, enpresa martxan jarri ondoko aholkularitza.

Zein da lan orientatzailearen bulegora hurbiltzen den jendearen perfila?

Hiru multzotan banatzen ahal da guregana etortzen den jendea: etorkinak, 40 urtetik goitiko emakumeak eta izugarritzko formakuntza eta hagitz prestakuntza duen emakume gazteak. Hauek hemen lana bilatzen saiatzen dira, baina kanpora jo behar izaten

dute. Hauetatik aunitz izaten ditugu. Etorkizunera begira izan daitezkeen lanpostuak edo negozioak identifikatzen ere saiatzen zarete. Zein izaten ahal da etorkizuneko lanbidea gure inguruan?

Cedernak urtero egiten du analisi moduko bat eta ikusten du zer enpresa edo zerbitzu berri sortzen ahal den leku bakoitzean. Gure kasuan, etorkizuna izan dezaketen zerbitzuak eta mendialdean ez daudenak aztertzen dituzte. Zerbitzu horiei laguntza ematen saiatzen gara, horretan lan egiteko prest egonen litzatekeen jendea bilatzen dugu eta aholkularitza eskaintzen diogu.

Uda partean inguru honetan lanpostu dextente sortzen dira ostalaritza arloan, baina aurtun langabeziak goiti egin du. Lan-arlo horrek gaina jo duela uste duzu?

Iruditzen zait hemengo jendeak ez duela ostalaritza lanean aritu nahi eta etorkinek betetzen dituzte lanpostu horiek. Guregana etortzen den jendea somatzen dugu hori, 'edozein lan eginen nuke, baina ostalaritza ez mesedez' erraten dute.



Sortze-tasaren hazkunderari batez ere, eta etorkinen etorrerari zor zaio matrikula kopuruen suspertzea

BUELTA EMAN ZAIO IKASLE KOPURUEN GAINBEHERARI

Duela 4 urteko datuekin konparatuz, ttikienetan, matrikula % 23 hazi da

Badirudi definitiboki irauli egin dela ikasle kopuruen gainbehera. Eskualdeko hezkuntza-maila guztiak kontuan hartuta ere, bilakaera doi-doi positiboa da lehen aldiz. Orain dela 4 urteko datuekin erreferentzia hartuz, %1,2 hazi da ikasleen kopuru absolutoa Baztan, Bortziriak, Leitzaldea, Malerreka eta Urdazubi-Zugarramurdi. Gorakada 3 eta 5 urte bitarteko ikasleen kopuruan nabarmentzen da gehien (%23) eta Lehen Hezkuntzan (6-11 urteak) eta Bigarren Hezkuntzan (12-16 urteak) bilakaera negatiboa da oraindik duela 4 urteko datuekin konparatuz; -%4 eta -%15 hurrenez hurren. Zoritxarrez, aurten ezin izan ditugu eskuratu Sara eta Senpereko daturik.

L. IRIGOIEN

«Iaz baino ikasle gehiago daude eskualdeko ikastetxeetan, eta gehien-gehienak, D ereduan (euskaraz) ari dira ikasten». Horixe da ikasturte berriko matrikula-datuei begiratuz na-

barmentzen ahal dena. Alde batetik jaiotze-tasaren hazkundera eta bertetik etorkinen haurren presentzia gero eta handiagoa daude arrazioen artean. Atzera begiratuz, iduri du 2002-2003 ikasturtean gertatu zela inflexio

puntua eta pixkanaka, ikasgelak betetzen ari dira berriz ere. Elizondoko San Fco. Javier ikastetxean, konparaziora, ikasgela gehiagoren premian dabilta aitzinera begira.

D EREDUA NAGUSI IKASLE GUZTIEN %93AREKIN

Euskara hutsean ikasten dutenen kopurua nagusi da Nafarroa Garaiko ipar-mendebaldeko ikastetxeetan. Hala, D ereduen ikasten dutenenak %93 dira ikasturte honetan, A ereduan %4 eta falta de %3ak B ereduan daude (Berako Jesusen Bihotza ikastetxean). A eta B ereduen artean ez da apenas mugimendu nabarmenik azkeneko 4 urteotan.

Sara eta Senpereko ikastetxeetan, ordea, frantses hutsean ikasten dutenak dira gehiengo absolutoa

2006/2007 IKASTURTEKO DATUAK

HAUR HEZKUNTZA ETA LEHEN HEZKUNTZA

	HAUR HEZKUNTZA			LEHEN HEZKUNTZA		
	A eredu	B eredu	D eredu	A eredu	B eredu	D eredu
BAZTAN	17		212	36		348
Almandoz IP			7			14
Amaiur IP			10			8
Arizkun IP			15			19
Arraioz IP			4			5
Azpilkueta IP			3			4
Elizondo (S. Fco. J.)	17		74	36		126
Baztan Ikastola			50			83
Erratzu IP			11			15
Gartzain IP			2			13
Irurita IP			16			25
Oronoz IP			13			23
Ziga IP			7			13

BERTIZARANA			18			22
Legasa IP			4			9
Narbarte (Arotzenea)			14			13


BORTZIRIAK	11	22	218	13	40	383
Arantza IP			12			15
Bera (Ricar. Baroja)			51			67
Bera (Labiaga Ikast)			46			86
Bera (Jesusen Biho)	11	22		13	40	
Etxalar (Landagain)			24			24
Igantzi IP			19			35
Lesaka (Irain)			37			87
Lesaka (Tantirumair)			29			69

LEITZALDEA			99			162
Areso IP			6			14
Goizueta (AN Xalto)			17			35
Leitza (Erleta IP)			76			113

MALERREKA	4		126	31		231
Beintza-Labaien IP						5
Doneztebe (S Migel)	4		92	31		164
Ituren IP			17			33
Saldias IP						3
Sunbilla IP			17			26

XARETA			12			14
Sara (Publikoa)						
Sara (St. Joseph)						
Sara (Olhain Ikast)						
Senpere (Publikoa1)						
Senpere (Publikoa2)						
Senpere (St. Joseph)						
Senpere (Ikastola)						
Urdazubi-Zugarram.			12			14

Guztira	32	22	685	13	40	1160
----------------	-----------	-----------	------------	-----------	-----------	-------------



Datu iturria:

- Nafarroako Gobernua
- Ikastetxeak

2006-07 Guztira **739**
2002-03 Guztira **566**

2006-07 Guztira **1213**
2002-03 Guztira **1259**

Hizkuntza ereduaren azalpena

- A eredu**: Irakasgai guztiak erdaraz daude, euskara irakasgaia izan ezik.
- B eredu**: eredu mistoa. Berako Jesusen Bihotza ikastetxearen kasuan, euskaraz ematen dituzte irakasgai guztiak 2 izan ezik.
- D eredu**: Irakasgai guztiak euskaraz ematen dira, erdara irakasgaia izan ezik.

BIGARREN HEZKUNTZA / KOLEGIOA

>16 urteak	BIGARREN HEZKUNT.		
	A eredu	B eredu	D eredu
BAZTAN	55		233
Lekaroz-Elizondo	55		233

BORTZIRIAK	16		195
Arantza IP			6
Bera (Toki Ona)	16		189

LEITZALDEA			172
Goizueta (AN Xalto)			17
Leitza (Amazabal)			155

MALERREKA			171
Doneztebe (Mendaur)			171

XARETA			10
Sara			
Senpere			
Urdazubi-Zugarram.			10

Guztira	71	781
	% 15	
2006-07 Guztira	852	
2002-03 Guztira	1000	

BATXILERGOA

>16 urteak	BATXILERGOA		
	A eredu	B eredu	D eredu
BAZTAN	20		138
Lekaroz-Elizondo	20		138

BORTZIRIAK			78
Bera (Toki Ona)			78

LEITZALDEA			57
Leitza (Amazabal)			57

Guztira	20	273
	% 17	
2006-07 Guztira	293	
2002-03 Guztira	243	

HEZIKETA ZIKLOAK / LIZEOA

>16 urteak	HEZIKETA ZIKLOAK		
	Erdi Maila	Goi Maila	
BAZTAN	79	38	
Lekaroz-Elizondo	79	38	

BORTZIRIAK	30	9	
Bera (Toki Ona)	30	9	

XARETA			
Senpere (Laboran. lizeo)			

Guztira	109	47	
	% 8		
2006-07 Guztira	156		
2002-03 Guztira	144		

ttipi-ttapa aldizkaria

Andutzeta, 12

E-31760 ETXALAR (Nafarroa)

Tfnoa: (+34) 948 63 54 58

Faxa: (+34) 948 63 54 57

www.ttipi.net

info@ttipi.net

Argitaratzailea: ttipi-ttapa fundazioa.

Presidente: Pello Apeztexea.

Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoien.

Zuzendaria: Aitor Arotzena.

Publizitatea: Kulturkari, SLU.

Administrazioa: Amaia Goia.

Berriemaileak: Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Peio Zestau, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Laetitia, Sandrine eta Krispin, Angela eta Xamo, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olgarai, Nerea Mitxelorena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Ainhoa Irazoki, Rakel Goñi, Rakel Amigo, Iratxe Kontsumitzaileen Elkarte...
Imprimategia: Gertu.

Erakunde laguntzaileak: Bera, Leizta, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara, Azkain eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarte, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	30 €
Espainia	30 €
Sara (edantegia-okindegia)	40 €
Ipar Euskal Herria	50 €
Europa	50 €
Amerika	108 €
Baztan, Urdazubi, Malerrekako eta Leizta	25 €



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du

• IRAKURLEAK MINTZO •

Euskalerrria Irratia, Nafarroako Gobernuaren aukera galdia

Euskalerrria Irratia berriro litzentziarik gabe uzten duen erabakiaren aurrean, honako hau jakinarazi nahi du Euskara Kultur Elkargoak:

Etsipen handia izan da Elkargo honentzat Nafar Gobernuak hartu duen erabaki hau, zeren honekin aurrera eramaten duen euskara eta komunikabideei buruzko politika negargarria zuzentzeko urrezko aukera galtzen ari da, euskararen normalizazioa lortzeko bidean.

Eta hau guztia, Europako Kontseiluaren gandik jaso zuten gaitzespena eta gero, irratia eta telebista euskararen erabilera bultzatzeko "ikus puntu zuzenago eta egituratuago" gomendioarekin, hain zuzen ere.

Nafarroako Auzitegi Nagusiak haren jokabidea espresuki gaitzetsi arren -1998an emandako litzentzien deuseztatu zituen irregulartasunak zirela eta-, eta horietako irratia baten bere lruñeko egoitza itxi eta gero, Nafarroako Gobernuak orain dela zortzi urte emandako berberei ematen die. Erabaki honekin, euskarari eman behar zaion lehentasunezko

jokaera, legediak azpimarratzen duen beza, alde batera uzten duete berriro Nafarroako UPNko agintariek.

Erabaki honek alegaltasunean bizitzera zigortzen du Euskalerrria Irratia, nahiz eta honek profesionaltasuna, kaudimen ekonomikoa eta jarraitzeko gaitasuna behin eta berriro erakutsi, lruñerrian bizi garen milaka euskaldunei kalitatezko irratia gure hizkuntzan eskainiz.

Berriz ere, Nafarroako Gobernuak, teorien denon gobernu, euskaldunen eskubideak ukatu egiten dizkigu, Foru Hobekuntzak orain dela hogeita bost urte euskara nafar hizkuntza dela errekonozitu arren.

Iulen Urbiola
EKEren zuzendaria

Akats zuzenketa

2006ko Telefono Gidari, Donamariako Bentari dagokion telefonoa, 59. orrialdean, gaizki zegoen idatzita. Honako hau behar luke jarri:

Donamariako Benta, 948 450708.

Erredakzioa

Goizueta bi gizon jatorrei, eskerrik onenak

Goizueta bi gizon-anaiak oso jatorrak, berrogeita hamar urte honetan Goizueta herria serbitzen aritu dira. Igeltseroak. Goizueta txoko guztiak apaindu dituztenak.

Orain jubilatu egin dira. Eskerrik asko Angel eta Agustín, zuek Goizueta herriari egin dizkizuen mesede guztiengatik. Osasunarekin asko disdrutatu. Merezi duzue eta. Agur.

Anttoniko (Goizueta)

Errepresio eta erasoen gainetik, gazteok Independentzia!

Abuztuaren 26 eta 27 rako Bera-Hendaia-Lezo mendi martxa antolatu zuen Segik, Euskal Herriaren zati-keta inposatua salatu eta independentziaren irrintzia Bidasoaren bi aldeetan zabaltzeko asmoz.

Beratik abiatu zen mendimartxa, eta Guardia Zibilak gazte bat identifikatu arren, ara-

zo handiegirik gabe iritsi ginen Lezoraino. Bertan ordea, ekitaldi politikoa egitekoa zen lekua hertzainez josia aurkitu genuen, jarrera erasokorraz, ekitaldia legez kanpokoa omen zela eta debekatua zegoela erran ziguten.

Hau ez da kasualitatea baina, azken al-dian PNVren aginduz zapelgorriak euskal gazteriaren kontra gogo bezet baitabilta. Donostian manifi-n kargatuz, Deban bideo emanaldi bat debekatuz, Intxaurrondoko gaztetxea mihatuz, herri desberdinetan gazteak mehatxatuz... Legearen aitzakipean euskal gazteria erasotu eta zant-patzeko aprobetxatzen ari dira PNVren zakur-rak, Espainolen morroi lehial moduan. Eta no-la ahan-tzi orain gutti ere, Lesakako alkate den Juan Fermin Mitxelenak (PNV), guardia zibila bi-dali zuela udaletxean geunden herritar talde bat desalojatzera.

Erasoak eraso, ordea, euskal gazteriak aintzina segituko du, bidean jartzen zaizkigun harresien gainetik, antolatuz eta eguneroko borrokaren bidez, independentziaruntz!!

Lesakako SEGI



www.ttipi.info
info@ttipi.net
☎ (0034) 948635458

• PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



BERRIA 2006-09-07

«Argi dago emaitzei begiratzuz gero ez direla hilabete oparoak izan, baina tira, nik hemezortzi urte ditut eta ezin naiz emaitzekin itsutu. Gutxinaka hobetzen ari naiz, ikasten, eta nik horri ematen diot garrantzia». «Niri ere goizegi debutatzen nuela iruditzen zitzaidan. Garai hartan, baina, enpresan ez zegoen aurrelari askorik eta ni pasatzea erabaki zuten. Nik ilusioa nuen, eta ezin ezetz esan, halere ez naiz damutzen».

Jon APEZETXEA

Goizuetako pilotaria
BERRIA 2006-09-07

«Gure seme-alabak honat ekarri ditugu derrigorrezko irakaskuntza guztia hemen egin dezaten nahi dugulako. Aukera hori, oraingoan, ez dugu, ikastola garelako. Horregatik ukatzen digute baimena. Hamaika aitzakia jarri dituzte. Jolastokirik ez genuela, gero behar bezain handia ez zela. Aitzakiak dira. Ikastola garelako gaude gauden bezala (...) Eremu euskaldunean, baina hagitz izorratuta gaude gu».

Iñaki CASTILLO

Berako Labiaga
ikastolako lehendakaria
BERRIA 2006-09-13

• 11 GALDERA LABUR •

Zer da zailago: ingudean Nafarroako marka egitea edo bestetan zezena toreatzea?

Ongi animatuz gero, zezenakin ibiltzea errexagoa. Errekorra egitea urte aunitzetako lana da.

Lasto altxatzen ere Nafarroako txapeladun zara... zer duzu gustokoen, ingudea edo lasto altxatzea?

Bi probak diferenteak dira. Ikusteko politagoa fardo altxatzea da, baina bietan gustora nabil.

Txapelketan parte hartu duzuen guziak herrikoak izanik, lgantzin bakarrik egiten al dira lasto fardoak?

Azken urteetan bai, lehen Ultzama-koak ateratzen ziren, baina azken 7 urteetan lgantzikoak bakarrik. Teknika hartzea kostatzen da.

Herri kirolez gain, bertze kirolen bat gustatzen zaizu?

Ikusteko futbola eta pilota gustatzen zait. Praktikatu ez dut egiten.

Miresten duzun kirolariren bat?

Aimar Olaizola eta herri kiroletan Eduardo Eugi, lehen aritzen zenean.

Etorkizunera begira, zer marka hobetzea gustatuko litzaizuke?

Hobetzeko aukera pizarra ingudearekin ikusten dut. Fardoarekin bertze altxaldi bat sartzea zaila da.

Gazteek bertso-pilota, herri kirol saioa, zezen korrida... antolatzen duzue. Besta egiteko astirik bai?

Bai... Bestak horren barrenean dau-

dezi. Zezenetan sartzeko ere aitzinetik besta pixko bat egin behar da.

Aurtengo Sanmigelestarako sorpresaren bat prestatuko duzue?


Zerbaite aterako da berriz ere.

San Migel egunean, elizara joateko ohiturarik baduzu?

Nik uste ez naizela egundaino izan. Lehenbiziko egunean besta kozkorra egiten dugu eta egun handian lo.

Bestetako programan gehien gustatzen zaizuna?

Gustokoena herri kirolak eta betizuak. Kostatzen zaigu egitea baina jendeari ere gustatzen zaio.



Xabi SEIN
lgantziko kirolaria

Karlos Alzugaray
FISIOTERAPEUTA
OSTEOPATIA

**Haur jaioberrientzako
osteopatia tratamenduak**

Itzea 20 · 31780 Bera · Navarra
T. 948 630 187 M. 607 853 208

TAXIA

Alc Pansa
629 438 765

BURKAITZEA
· ostatu
· erretegia

Zugarramundiko bidea, 3 km
948 599 280 - URDAZUBI

TOLDOOS BAZTAN

PERSIANAS TOLDOS BAZTAN

TOLDOAK salmenta-konponketa-alkairua-errotulazioa
MOSKITERAK-PERTSIANAK motorizatuak-venecianak
PVCzko LEIHO eta ITXITURAK

Tel-Fax: 948 631 003
Bidasoa, 66 behea - BERA

ERREPIDEAK

N-121A errepideko berritze lanak 2009ko lehen hiruhilabetekoan akautuko omen dira

Igantzitik Endarlatsako zubira bitarteko zatia moldatuko da

ttipi-ttapa

Nafarroako Gobernuak 270 milioi euro inbertituko diru autobideen eraikuntza bizkortzeko eta komunikazio-ardatz estrategikoan eta lurralderako interesa duten errepideetan bertze lanak egiteko, irailaren 7an emandako prentsaurrekoan jakinarazi zuen. Dirutza horretatik 165 milioi Nafarroako hiru komunikazio-ardatz estrategikoetan, Ebroko Autobidean, Pirinioetako autobidean eta N-121A errepidean alegia, egin beharreko hamar lanetan joanen dira.

N-121A ERREPIDEA

N-121A errepideari dagokionez, moldatze lanen bukaera sei hilabete aitzintzea eta 2009ko lehenbiziko hiruhilabetekoan irekitzea espero du Nafarroako Gobernuak. Ordura bitartean eraikiko diren bide-zatiak Igantzi-Etxalar, Etxalar-Bera, Bera-Endarlatsa eta Endar-



ARTXIBOKOA

Endarlatsako zubi berriaren erdia ordainduko du Nafarroako Gobernuak, 6,1 milioi euro. Lanak 2007ko otsailean aterako dira lehiaketara eta gainerako lan guztiak bezala, 2009ko lehen hiruhilabetean zabalitzea espero da.

latsako zubia izanen dira. Jakina denez, Endarlatsako zubiaren erdia ordainduko du Nafarroako Gobernuak eta bertze erdia Gipuzkoko Foru Aldundiak. Ardatz honetako lanen artean, Ostizko saihebsidea eraikitzea ere sartu da. Guzira, 68,9 milioi eu-

roko inbertsioa egingen da Belateko ardatz honetan. Igantzi-Etxalar zatiko lanak 2006ko urrian aterako dira lehiaketara eta 22 milioi euroko inbertsioa egingen da, 6 milioi 2007an, 7 milioi 2008an eta 9 milioi 2009an. Etxalar-Bera zatiaren lanak 2008ko

azaroan aterako dira lehiaketara, 20 milioi inbertsioarekin (4 milioi 2007an, 7 milioi 2008an, eta 9 milioi 2009an). Bera-Endarlatsa zatian 15,5 milioi inbertituko dira, 2,1 milioi 2007an, 5 milioi 2008an eta 8,4 milioi 2009an. 2006ko abenduan aterako dira

lanak lehiaketara. Endarlatsako zubian, dagokion erdia ordaintzeko 6,1 milioi euroko inbertsioa egingen du Nafarroako Gobernuak, 1,5 milioi 2008an eta 4,6 milioi 2009an. Lanak 2007ko otsailean aterako dira lehiaketara eta gainerako lan guztiak bezalaxe, 2009ko lehen hiruhilabetekoan zabalitzea espero da.

ELIZONDO-IRURITA SAIHESBIDEA

Gainerako 105 milioi euroak 29 proiektutan erabiliko dira. Proiektu hauetan sartuak daude zenbait herritako zeharbide arriskuak desagertaraztea. Honela, gure eskualdeari dagokionez, Irurita-Elizondo saihebsidea egingen da. Proiektu honetan 9,4 milioi inbertituko dira, 2 milioi 2008an eta gainerakoa 2009an. Lanak 2007ko urrian lehiaketara aterako dira eta 2009ko lehen hiruhilabetekoan saihebsidea irekitzea espero da.

Lanchas
PARKETAK - TARIMAK
KUTXILLATZEA ETA BERNIZATZEA
ESTALDURA OROKORRAK
Bera - Tfno: 948 631 735 - 487 404 781

ZUBIONDO JATETXEA
Alasta karrika
BERA NAFARROA
TLF 948 625 472
sagardotegia jatetxea sagardotegia

BIZIKLETEN
SALMENTA ETA KONPONKETA
Kanttonberri, 1 • BERA
948 63 12 18
Ongi pasatzen!

LABE ZAR
Tel: 948 631 076 • BERA

SAIHEBSIDEA
Altzate, 19 • 948630786 • BERA

BERA

Bera Lantzen elkarteak udal hirigintza kudeatuko du

Bertzalde, Nafarroa Oinezek
lanerako 2.000 lagun behar ditu

Amaia eta Ainhoa

Berako Udalak 2006ko abuztuaren 16an egindako osoko bilkuran, hirigintzako zerbitzua, merkataritza elkarte baten bidez, zuzenean kudeatzeko erabakia hartu zuen. Bera Lantzen, S.L. deituko da elkarte mugatu hori eta Berako Udalak partaidetza eskusiboa izanen du. Berako Udaleko hirigintza kudeatzeko eratu da elkarte hori, kudeaketa zuzena egiteko hain zuzen. Bestalde, elkarte hori arautuko duten Estatutuak ere onartu dituzte. Estatutu horietan izaera eta araubide juridikoa, xedea, helbidea, iraupena, kapitala soziala, Gobernu-ko organoak (Batzar Nagusia eta Administrazioa Kontseilua), elkar-terko organoen araubideak, ekitaldi eta baliabide ekonomikoak, onuren aplikazioa, kudeaketa sozialaren gaineko zaintza, elkarte de-

segitea eta likidazioa arautzen dira. Erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da hilabeteko epean ondorioak izan ditzan.

Nafarroa Oinezek lanerako 2000 lagun behar ditu

Datorren urriaren 15ean izanen da Beran Nafarroa Oinez eta urte beteko lanaren ondorengotik, azken xehetasunak prestatzen ari da lagun talde haundi bat. Eguna ongi joan dadin, 2000 pertsona behar dira txosnetan aritzeko, segurtasunean, salmentan, garbiketan... Antolakuntza lana errazteko, irailaren 22a baino lehen izena ematea eskertuko luke ikastolak eta horretarako oinezbera@hotmail.com posta elektronikora idatzi dezakezue edo telefono zenbaki hauetara deitu: 600344665,



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

XI. Jon Irazoki Memorialean Gure Txokoa txapelkun!
Jon Irazoki Memoriale eta hiru talde aritu ziren elkarren arteko lehiari: Berako Gure Txokoa, Lesakako Beti Gazte eta Baztan. 45 minutuko hiru partiduko jokatu zituzten eta azkenean penaltietara arituz Gure Txokoak lortu zuen garaipena. Bigarren zatia bukatuta, Gure Txokoa-Beti Gazte partidua hasi aurretik, Joseba Petrirena Gure Txokoako jokalararen izebaren oroimenean minutuko ixilunea gorde zen. Sari banaketan, hirugarren postuko kopa Manolo Tabernak eman zion Baztango kapitainari. Rafa Pombarrek, (Ugaldea aholkukaritzan) bigarren postuko kopa Mikel Irigoien Beti Gazteko kapitainari eman zion eta irabazleena, Jon Irazoki zenaren aitak, Jose Mari Irazokik, eman zion Iñaki Irazokiri, Gure Txokoako kapitainari.

948625215 edo 948631558. Taldeak nahiz banaka ematen ahal da izena baina antolatzaileek taldeak izena ematea eskertuko lukete, arduradun baten izena eta telefonoa emanez, eta partaide kopurua zehaztuz.

XII. Dantzari Ttiki Eguna

Larunbat honetan, irailaren 23an ospatuko da XII. Dantzari Ttiki Eguna. Gure Txokoa Dantza Taldearekin batera, Senpereko Zirikit, Zaldibiko Iztueta eta

Bortzirietako bertze dantza taldeak arituko dira. 10:30etan harrera egiten zaie taldeei. 11etan kalejira izanen da, lau ibilbide ezberdinekin. 13:00etan jaialdia egiten da Altzateko Plazan eguraldi ona bada, bertze eskolako frontoian. Beratarrek Agintariena eta Aurrekua dantzatzeko dute eta gainerako taldeek dantza bana eskainiko dute. Dantzarietako dantzarien etxeetan bazkalduko dute. Berrikuntza bezala, aurtan arratsaldeko 16:00etan Kul-

ki taldearen saioa ikusteko aukera izanen dute hurrek.

Gure Txokoako mutilek ere HerriZ Herri txapelketan

Joan den urtean neskak berriz ere sokatiran hasi ziren eta aurtan, Gure Txokoako mutilek ere herri kirolen bideari ekin diote. Proba konbinatu ezberdinak biltzen dituen HerriZ Herri txapelketan aritu dira. Azkeneko saioa irailaren 16an izan zuten Lantzen.

ANSONEA
Ostatua-Jatetxea
Eguneroko menua eta
astiberrak menu bereziak
Terraza estalia eta Ziberkafea
Foruen Plaza 1 - 948 631 155 - BERA

carroba
gastegia okindria
of. de enologia 25 bajo
36700 berri-nabarra
1948-630899
www.carroba.net

BAR Botxo
OSTATUA
© 948630052 • Zalain • BERA

LESAKA

Zeltiarrak izan daitezken aztarnak topatu dituzte Agiñan

2007ko udazkean lehen indusketa lanak egiteko baimena eskatu dute

Aitor AROTZENA

Europa eta Estatu Batuetako arkeologia adituak biltzen dituen Archäologie in Gleiderger Land, e.V. elkarte-ko kideek zeltiarrak izan daitezkeen aztarnak topatu dituzte Agiñako gainean. Elkarte honek, inguru horretan indusketak egiteko lehenbiziko tramiteak ere egin ditu.

Agiñan hiru ibilbide seinalizatzeko egin beharreko lehenbiziko lanetan ikusi zituzten adituek gelditzen diren aztarnak, garai batean Agiña ostatua zen etxearen gaineko aldean. 2.000 metro koadroko eremu borobilean, lur-eremu eta belarrarekin kasik erabat estaliak dauden harriez gain, muga egiten dute bi hesi ere ageri dira. Hasierako hipotesien arabera, asentamenduaren forma eta altuera ikusiz, zeltiarra izan daitekeela aipatu dute teknikariek.

Archäologie in Gleiderger Land elkarteak, Claudia Nickel doktorearen zuzendaritzapean, aitzinproiektua idatzi du dagoeneko. Urtea akautu baino lehen txostena idatziko dute eta honekin, indusketak egiteko baimenak eskatuko dizkiete Nafarroako Gobernuari eta Lesakako Udalari. Lehen indusketa lanak 2007ko udazkenean egitea da elkarte honen asmoa.

Ikastaroak

Beti Gaztek hainbat ikastaro antolatu ditu: sevillanak, dantza-jazz, ballet, pilates, karate, tai-chi chuan, dantza latinoak, batuka eta yoga. Ikastaroak urritik ekainera egingen dira eta izen emateko epea irailaren 22an akautuko da. Horretarako, 948 627 558ra deitu behar da, 9:00etatik 13:00etara.

Oinez Antzerkia

Nafarroa Oinezek anto-



ARGAZKIA: J.J. GUERRERO

Juana Aleman eta Idoia Telletxea omenduak

Batzoki elkarteak bigarren urtez antolatu duen Emakumezkoen Kopa jokatu aitzinetik omenaldi polita eskaini zitzaion Juana Aleman eta Idoia Telletxeari. Duela kasik 20 urte Beti Gaztek zelairatu zuen emakumeen lehen futbol taldeko partaideak izateaz gain, entrenatzaile ere izan dira hainbat urtez, Juana neskekin eta Idoia mutiko kadeteekin.



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

«Lesaka: Harria, burdina eta zura» erakusketa

«Lesaka: harria, burdina eta zura» izeneko argazki erakusketa ireki zen irailaren 8an Beti Gazte elkartearen. 70 argazkiz osatutako erakusketa honen ideia eta testuak Carmen Ruiz de Garibay lesakarraren dira eta argazkiak Giuliano Mezzacasarenak (argazkian). Irailaren 30a arte zabalik izanen da erakusketa aski interesgarri hau, astelehenetik larunbata arte, 18:30etik 20:30era eta igandetan 12:00etatik 14:00etara.

latuta, Trikuharri antzerki taldeak «1, 2, 3... Inaxito» antzeslana eskainiko du 17:00etan Plazan (euria egiten badu frontoian. Gero, jolasak eta tailerrak izanen dira.

Kinto afaria

1958, 59 eta 60ko kin-

toek afaria egingen dute irailaren 30ean Irubiden. Txartelak salgai daude 28a arte Koxkilla, Etxeberria eta okindegian.

TOAILAK-MANTELERIAK-OHEKO MAINDREAK
Eskolako haurren mantalak etab...
bordatzan ditugu

Herriko bestetarako, kamisetak, eta bluzak
peña bakoitzaren logotipo eta izenekin
bordatzan ditugu

Etteri Plz. Berriz 4-ra eta ikusi bertako eskaintza!!! Tel: 948 627 640 - 689 481

Alberto RETEGI
abokatua
abokatua

© 948 630 763 - Alizate, 17 - BERA

GOZZ-ALDE
JANARRIAREN 28A

ETXALAR

14 haur berriekin hasi da ikasturtea Landagain Eskolan

Aspaldiko urtetan ez zen hiru urteko hainbertze haur hasi

Joseba eta Nerea

Familia ederra sartu zen Landagain eskolan joan zen irailaren 8an. Aspaldiko partez, hiru urteko 11 haurrek hasi zuten ikasturte berria eta bertze hiru gehiago hasi ziren bertze mailetan. Urte aunitz ziren hainbertze haur batera hasten ez zirela. Guztira 51 ikasle ditu momentuotan Etxalarko eskolak. Hauexek dira hasiberriak: Goietxeko Unai Arburua, Errekaldeko Igoñe Arrosamena, Lekuederko Etxahun Azkarraga, Mikelestoneko Koldo Bizente, Sarobeiko Enaut Jauregi, Eguzkitzako Janire Telletxea, Dariavanesa Touren, Irati Elizalde, Amaia Etxeberria, Markel Etxarte, Aiert Irigoien. Bertze hiru brasildar ere hasi ziren: Rafaela, Marta Amada eta Eduarda, lau, sei eta zazpi urtekoak.

Joxe Mari Remirok segituko du zuzendari. Irakasleak berriz honakoak: haur hezkuntzan, 3 eta 4 urtekoekin Ainhoa Larretxea goizez eta Idoia Bereau arratsalde. Lehenbiziko zikloan, 5 urtekoekin, Junkal Alzuguren. Bigarren zikloan Joxe Mari Remiro eta hirugarren zikloan Aintzane Ollokiegi. Ingeles irakaslea, Izaskun Urbietza izanen da.

Ikasturteko berrikuntzen artean 5 urteko haurrak ez direla hiru eta lau urtekoen gela berean egonen aipatu behar da. Aurten lehenengo ziklokoekin batera egonen dira eskolako goikoa pisuan.

Ederki kostata botatako basurdea

Gertaera kuriosoa- rekin hasi zen irailaren 2an basurde-sasoia. Ar-



ARGAZKIA: AITOR A.

Hiru urteko hameka haurrek hasi dute ikasturte berria.

gazkiko basurde tzar horrek (115 kilo) lan ederrak eman zizkien herriko hainbat ehizturiri denboraldiaren lehen egunean. Gorospilen jo zuten tiroz arratsalde partean basurdea baina ez zuten hiltzea lortu. Zauritua, Urritzokietako auzoraino jautsi zen, erreka erreka. Sainduneko Bordako zubian auzotar bat ikusi eta zuzen-zuzenean bereganatu jokatu zen, jo eta lurrera botaz. Handik herriara segitu zuen ibilbidea eta Beolaldea auzoan bertze auzotar bat kolpatu zuen. Azkenean, herriko gazte batek hil zuen tiroz, depuradora ondoan. Bi herriarrek zauri arinak izan zituzten eta errekupe ratzea lortu dute. Hala ere, sustoa ez die inork berehalakoan kenduko.



ARGAZKIA: ONINTZE

Lan ederrak eman zituen 115 kiloko basurdeak.

Urritzokietako bestak

Santa Krutz bestak ospatu zituzten Urritzokietako auzotarrek joan den aste hondarrean. Sainduneko Bordako Zubian 70 bat lagun bildu ziren irailaren 17an, bazkari ederraren bueltan. Giro onak eta musikak ez zuten hutsik egin. Irune eta Itsaso trikitilar gazteek dantzan pa-

ratu zituzten bildutakoak eta berandura arte luzatu zen besta, afaria egin baitzen bazkari sobrantekin. Urritzokietako bestak herrian ospatzen diren auzoko besta bakarrak dira, gainerako guztiak galtzen joan baitira. Azkenekoak Antsolokuetakoak izan ziren, baina duela bi urte galdu egin ziren hauek ere.

ZJ
Zalain
jatetxea
Hostala
14 logela,
bainu eta TBrekin
Bera - Nafarroa

PRIM, c.b.
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaiak
- Trafiko Istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • **BERA**
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • **IRUN**

XATURETXEA
JATETXEA
T: 948 637 027 - LESAKA

IRU BIDE
Estrategia - Asador
Bila / Osa, 3 - Lesaka
Tel: 948 637 127

ARANTZA

Herritar talde bat Portugal aldean oporretan ibili da

Asier Apezetxea laugarren izan zen Igantziko Mendi Bizikleta proban

Nerea ALTZURI

Uda giroko egunak gutti izan ziren joan den hilabeteen. Eguraldi beltza eta frexkoa izan zen abuztuan. Iraila hasieran, aldiz, bero handiak egin ditu egun batzuetan, zenbaitetan itogarriak ere suertatu direnak. Urtaroa agurtu dugu aste honetan. Udazkeneko lehenengo egunetan gaude. Udazkenean zer eguraldi gailenduko den ikusi behar. Ehiztariek eguraldi ateria, lainorik gabea eta euririk eginen ez duen sasoi nahiko dute. Aurtan ere guzia prest dute Ekaitzan eta Bagaxarren. Hurrengo hila-bete hasieratik han eta hemen ehiztariak ikusiko dira, etxoletan ez baldin bada postu edo setoetan. Ehiztari aunitz dago herrian, zaletasuna izugarria da. Batzuek

mendia gogoko dutela eta, onddo biltzen airtzeko ere probexten dute. Izan ere, ehiztariek ez ezik onddo biltzaileek ere somatzen dute usaina eta onddoleku onetara jotzen dute jakipreziatuaren bila.

Uda idor joan dela dioenik ere bada: auskalo, onddotan ibiltzeko zale horrek etxean gelditzeko aukera eginen duen edo ez. Gainerakoan, udako uzta oparoa izan da batratze batzuetan: tomate eder, mamitsu eta dastagarriak jan ditugu, piperrak, patatak... Batzuek oporrak udan izan baldin badituzte ere, bertze batzuk urtaro hau aukeratzen dute atse-denaldiaz gozatzeko.

Portugalen egonaldia

Urtero bezala, aurtan

ere, Martin Legarra apezak antolatutako oporraldiak izan dira. Maitezean Ameriketako Estatu Batuetako hiririk entzutetsuenak ezagutu baldin bazituzten, irailaren 4tik 11ra bitarte Portugaleko lurretan ibili da bidaiari taldea. Hemezortzi herritar eta inguruko bertze zenbait lagun autobusean abiatu ziren irailaren 4an, goizean goiz. Astebe-tez, herri, hiri, xoko, monumentu, museo eta bertze bisitatu dituzte: Fatima, Estoril, Lisboa eta Lisboako itsas al-deko herrietan barna itzulixka egin dute zazpi egunez. Ongi pasatu dutelakoan gaude. Espainia, Katalunia, Galizia, Tunisia, AEB eta hainbat lekuetan ibili dira herritarrak bidai antolatu eta gidatu haue-tan.



ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENA

Asier Apezetxeak lanean segitzen du
Asier Apezetxea Iparragirre txirrindulari gazteak gogor segitzen du mendi bizikletan. Abuztuan as-teburu batzuk libre izan ondotik, irailarekin bate-ra probetan hasi da. Berekin solasteko aukera izan dugu eta pena du, bai, etxe ondoko Igantziko mendi bizikleta proban zorte txarra izan baitzuen. Irailaren 10ean parte hartu zuen. Hagitz ongi zihoan lasterketa hasieran, Patxi Zia txapelkunaren ondotik. Halere, egin beharreko lanaren erdian, gurpila zulatu zitzaion bizikletari eta gibelean gelditu zen. Asierrek laugarren akautu zuen, 5 minutu pasatxoko aldearekin, baina emaitza onak izan dit bertze probetan. Euskadiko txapelketa eta Connor-Saltokiko txirrindulari aranztarra irailaren 2an Berrizen buruturiko Euskadiko Irekian bigarren gelditu da. Bertzalde, joan den igandean, Ramalassen (Kantabria) Espainiako Irekian parte hartzekoa zen. Vasco-Navarro txapelketan lehenbizikoa doa sailkapen orokorrean eta urriaren 1ean eta 7an Pobeñan eta Elorrioko kronoigoeran azkeneko probak eginen ditu. Bertzalde, urriaren 12an Pirinioetako Openean lehiatuko da Asier, iaz irabazi zuen lasterketan.

ARTEKARI TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea

- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegarritasun planak eta aurrekontuak

artekari@artekari.com

LESABA: Bittiria, 71-behea · Tel: 948 637 050 · Faxa: 948 637 404
BURLATA: La Viña, 4 · Tel: 948 133 328 · Faxa: 948 133 713

Tel: 948 634 179

ARANTZA

ATERPE

ALBERGEA · IATETXEA

Belarra

jatetxea

948 450 306

Ameztiak karrika

DONEZTEBE

IGANTZI

Patxi Ciak irabazi zuen XVI. mendi Bizikleta Ibilaldia

Joxe Mari Goia herritarra bigarren izan zen proba nagusian



Proba hasierako irudia, Asier Apezetxea buru zela. Ondoan, podiumean Patxi Cia irabazlea, Jose Mari Goia bigarrena eta Jose Luis Iñorbe hirugarrena.

ARGAZKIAK: OSKAR TXOPERENA

ttipi-ttapa

Joan den urtean bezala, Conor BikeZona taldeko Patxi Cia ultzamarrak irabazi zuen Igantziko mendi bizikleta ibilaldia. Patxi Ciak 56 minutu eta 58 segundu behar izan zituen 22 kilometroko ibilbidea osatzeko eta ordubete-

tik jautsi zen txirindulari bakarra izan zen. Bigarren postua, Igantziko Jose Mari Goiak eskuratu zuen, Ciak baino 3 minutu eta 52 segundu gehiago erabilita eta Jose Luis Iñorbek osatu zuen podiuma, 4 minutu eta 9 segundura helmugaratuta. Co-

nor-Saltokiko Asier Apezetxea aranztarrak ez zuen suerterik izan eta lehenbiziko itzulian pintxozoa izan zuen. Azkenean, laugarren postuan akautu zuen, irabazleak baino 5 minutu terdi gehiagoko denborekin. Aitor Urruzola bosgarren izan zen.

Patxi Cia eta Asier Apezetxea igande honetan Espainiako Opeteko proba batean parte hartzeak ziren Kantabriako Ramales herrian.

BERTZE KATEGORIETAKO IRABAZLEAK
Master-40 kategorian,

Ramon Lekuona nagusitu zen, Iñaki Izagirre- ren aitzinetik. Junior kategorian, Aitor Begino izan zen lehenbizikoa eta Beñat Seminario bigarren. Kadete kategorian, Beñat Txoperena igantziarra nagusitu zen, Aritz Mujikaren aitzinetik.



SOULE

Hileta artea

Tel: 948 453444 • 629 659583
ARIZKUN



Pitti
eskabazleak
Tel: 616 513 491

Mendiak eta, 34 ZUBIETA

Larkilamaki

ARKITEKTURA ETA HIRIGINTZA

ERRESISTITZA PROIEKTUAK
URRUGIAZIO PROIEKTUAK
ETXEN SORRITZEAK
HABEAK
KONSULTAK
INFORMAZIOA: 20

SANTIAGO 35 2ºB ELIZONDO TEL: 948 581 931

ANTZUZELA
S.L.

Tel: 948 631 317

HARRO NATURALA

Abertzaletasun eta Lantzen

Antzuzela Harroak Etxeak Etxeak Etxeak Etxeak Etxeak	Talantak Lantzen Harroak Etxeak Etxeak Etxeak Etxeak
--	--

Harroak eta Lantzen
Faber antzuzela lantzen

ZINTARRIAK
ADURTARRAK
ZULAK

Irungo errepeidea
BERA

DONEZTEBE

Eako Ramon Etxebestek alkatetza berreskuratu du

Zinegotzi independenteek abstentzioa eta kontrako botoak eman arren

ttipi-ttapa

Irailaren 8an udalak egindako udalbatzarrean, Eusko Alkartasunako Ramon Etxebeste Urrutia izendatu zuten alkate berriz ere. Jaki na denez, Ramon Etxebeste izan zen legealdi honetako lehendabiziko alkatea, baina 2005-eko maiatzaren 15ean aurkeztutako zentsuramozio baten ondorioz, hasiera batean EAKoa zen Joxe Irigoien izendatu zuten alkate. Irigoien, abuztuaren 28an hil zen, baina hil aitzinetik, Teresa Gasparzi negotzia izendatu zuen bere kargua betetzeko.



ARTXIBOKOA

Berriz ere alkate den Ramon Etxebeste, Herriko Etxearen aitzinean.

LEGE-ARLOKO KONTSULTAK

Baina irailaren 8ko batzarra baino lehen hainbat kontsulta egin zituzten Doneztebeako udaletik, Nafarroako Gobernuko lege-arloko zerbitzuetara, Nafarroako Hauteskunde Batzordera, baita Espainiako Hauteskunde Batzordera ere. Hauen arabere-

ra, hauteskunde zerrendetako talde-buruak bakarrik izan zitezkeen alkategai. Beraz, Ramon Etxebeste zen alkategai bakarra, gaur egun EAKo udal taldean dauden zinegotziak salbu, gainerako guztiak aurkeztu zireneko alderdietatik kanporatuak baitaude. Halere, joan den

urteko zentsura-mozioaren ondotik, Etxebeste bere taldeko azken postura pasatu zen. Honela, EAKo Belen Arregi eta M^a Jose Rekarte izan zitezkeen alkate, baina hauek bere eskubideari uko egin eta Ramon Etxebeste taldekideari utzi zioten lekua. Hamar minutu iraun

zituen batzarrean, Etxebestek aldeko 3 botu eskuratu zituen, berea eta Arregi eta Rekarte taldekideena; Vicente Maylin eta Jesus Juanenak kontra bozkatu zuten eta bertze 3 zinegotziek, Alfredo Zugarramurdi, Teresa Gaspar eta Serafina Grazenea abstenitu ziren.

FLASH

Bestak asteburuan

Aurten ados jarri dira Burrunba, ostatutakoak eta udala egitarauaren gastuak elkarrekin ordaintzeko. Ortziraletik igandera musika, herri bazkaria, jokoak...

Zuzendaritza Batzode berria

Erreka kirol elkarteak joan den larunbatean, irailaren 16an, Batzar Orokorra deituak zituen bazkideak. Gai nagusia Zuzendaritza Batzordearen aldaketa. Oraingo zuzendaritzaren legealdia bukatu da eta ez segitzeko erabakia hartu dute. Bileragarrantzitsu honen berri hurrengo alean emanen dugu.

Pilotariak bikain Logroñon

El Cortijo pilota txapelketa famatuko bi finaletan Erreka elkarteak ordezkariak nagusitu ziren irailaren 9an. Lau terdiko txapelketako final ean Errekako Iraola almandoztarrek 22-21 irabazi zion Alvaro Gomez errioxarrari, 470 euro, 3 botil ardo eta bi lagunendako afaria eskuratuz. Pilotaririk onenaren saria ere eskuratu zuen. Kadete mailako finalean Errekako Aiestaran eta Iraolak 22-12 irabazi zieten Errioxako Aser eta Lucas-i.

APARAN, S.A.

BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab.

Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

BORTZIRI

UNSION ANAIK

sukalderako altzariak

ERAKUSKETA

Bereau etxea • LESAKA

Tel.: 948 637 266 • 607 226 891

Faxa: 948 637 511

SUNBILLA

Ramon Latasaren eskulturaren maketa Herriko Etxera ekarri dute

Eduardo Zancada artista famatuak egingen du

Jaione OTXANDORENA

Joan den abuztuaren 20an ekarri zuen Eduardo Zancada eskultoreak Sunbillara Ramon Latasa aizkolariari egin behar zaion eskulturaren maketa. Benetako eskultura brontzezkoa izanen da eta 5 metroko altura izanen du. Maketan dagoenak metro bat du eta buzti-nezkoa da. Guzti hone-tan lanean ari den taldeari, Antton Espelosin, Pako Errandonea eta Miguel Mari Latasari, aunitz gustatu zaie maketa, eta diotenez, arrunt ongi egina dago. Eduardo Zancada eskultorea Meridan sortua da, baina gaur egun Madril-en bizi da. Bere lanak ha-

gitz famatuak izan dira baina agian aipagarriena, Madrilko Puerta del Sol-en dagoen Carlos III.ren eskultura da.


Eskultoreak eguna Sunbillan pasatu zuen eta ikaragarri gustatu zitzaion benetako artelana jarriko den lekua, baita gure herria ere. Ulibeltzak elkartean bazkaldu zuen, eskulturaren lan taldea osatzen dutenekin. Bazkaria Anjel Mariezkurren-ak prestatu zuen. Komisioko partaideek heldu den urteko abuzturako eskultura Sunbillan egotea eskatu zioten eta eskultoreak baiezkoa eman omen zuen. Dena den, maketa ikusi nahi duen guztiak as-

ki du Herriko Etxera joatea, hortxe baitago guztientzat ikusgai.

Bertzalde, egitasmo honen gastuak ordaintzen laguntzeko zozketa egin zen abuztuaren 19an. Peugeot 206 kotxea (1220 zenbakia) Lesakako Josetxo Etxepareri egokitu zitzaion eta Kubara bidaia (8110 zenbakia) Hondarribiko Francisco Pikabeari. Zorionak!!!

Film laburra

Nafarroako Gobernuak Tuterako Julio Mazarico zuzendariaren film laburra Sunbillan grabatzeko dirulaguntza eman du. Oraindik grabazio egun zehatzak zein izanen diren ez da-



ARGAZKIA: FOTO ZALDUA

Ramon Latasari eskainitako eskultura brontzezkoa izanen da eta 5 metroko altuera izanen du.

kite, baina azaro alde-
ra izanen da. Irudiak He-
rriko Etxean, Arretxean,

elizan eta Palazioan gra-
batuko dira eta herriko
extrak ere arituko dira.

1951tik lantzeria-etxea
Casa Cambra

**MANTETAN ESKAINTZA
ZABALA**

albornozak · mantelak
edredoi nordikoak · kuxinak
ohe estalkiak · maindireak
toailak · edredoi-azal nordikoak

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634



URROTZ

San Migel bestak irailaren 27tik urriaren 1era

Larunbatean herri bazkaria bertsolariekin eta igandean aizkora apostua eginen dira

Asteazkena 27

20:00etan: Altxaferoak eta ezkilak bestei hasiera emateko.

20:30etik aitzinera: Zopak eta txuri-bel-txa Herriko Ostatuan. **Gauetz:** dantzaldia AGERRALDE akordiariarekin.

Ortzeguna 28

9:30etan: Urrozko III. txirrindulari txapelketa.

10:00etan: Mus txapelketaren hasiera.

18:00etan: Haur joak eta txokolatada. **Arratsaldez eta gauetz** dantzaldia JO-

XE ANGEL akordio-lariarekin.

Ortzirala 29

11:30etan: Meza nagusia. Ondoren Luntx eta Herri kirolak herriarrak baserriarren aurka urtero bezala. **19:00etan** pilota partiduak.

Arratsaldez eta gauetz dantzaldia JALISKO BAND taldearekin.

Larunbata 30

8:00etan: gazteen erretirada.

10:00etan: Mus txapelketaren finala.



ARGAZKIA: JOSEBA URROTZ

Besten hondar egunean aizkora apostua jokatu dute Felix Etxeberria eta Xabier Mindegia, Unai Otaño eta Jesus Mujikaren kontra.

12:00etan: Urrozko IX. helduen pilota txapelketaren finala. Goizean eta bertso tartetan AGORRETA musika eskolako soinulariak.

14:00etan: Herri bazkaria Sebastian LIZASO eta Jexux M. IRAZUREkin.

Ondoren Sokatira, txingak eta joko gehiago ezkonduak ezkongabeen aurka.

19:00etan: San Miguel torneoko pilota partiduak.

Gauetz dantzaldia MODESTO akordio-lariarekin.

Igandea 1

9:00etan: alkoholemi kontrola eta gehien ematen duenak gosaria debalde.

11:00etan: Haur Parkea.

13:00etan: aizkora

apostua: Felix ETXEBERRIA eta Xabier MINDEGIA; Unai OTAÑO eta Jesus MUJIKAREN aurka.

17:00etan: GORRITI eta bere animaliak.

20:00etan: Urrozko III. tortilla eta postre lehiaketa. Hauek gero pintxotan banatu dute jende artean.

0:00ak arte: dantzaldia AGERRALDERekin.

KLINIKA ANIBULATORIOA BEGIETAKO MIKROKIRURGIAN
OFTALMOLOGIA ZENTRUA

www.luzclinic.com

Oftalmologiaren beste ikuspegi bat

- 1986 Begietako mikrokirurgia osoa ospitalizatu gabe
- 1990 Kirurgia errefraktagarria Laser Excimer-arekin
- 1993 Anestesia topikoaren erabilera begi-lanbroen kirurgian
- 2001 Ikusmen nekatuaren kirurgia inplante egokiorrak erabiliz
- 2004 Begi-lanbroen kirurgia mikro-ebakidurekin
- 2005 Laser tratamendu pertsonalizatua Topolyzer-ekin
- 2006 Malko-bideen tratamendua mikro-endoskopiarekin

Frantziako Osasun Agintariek kreditatua

Eskiroz, 31 • 8 solairuartera • 31007 IRUÑA • Tfnoa: 948 199 999

Juan de la Cruz, 5 • TEKNIKIA ZENTRUA • 20300 IRUN • Tfnoa: 943 660 150

Ferme Dai Balta, 6 • ZA Layatz II • 64500 DONIBANE LOHIZUNE • Tfnoa: (0033) 559 51 84 00 (FR) - 902 209 299 (SP)

IRUÑA DONIBANE LOHIZUNE IRUN

ARKUPEAK

Urriaren 19an Lodosa eta Lizarrara bidaia antolatu da

Izen ematea urriaren 1etik 11ra egin behar da



ARTXIBOKOA
Pikillo-piperra
nola egiten du-
ten ikasteko mo-
dua izanen dute
erretiratuek.

tipi-tapa

Lodosa eta Lizarra-
ra joanen dira urriaren
19an Arkupeak erreti-
ratuen elkarteko lagu-
nak. Izen ematea urria-
ren 1etik urriaren 11ra
egin behar da eta egun
osoko prezioa 30 euro-
koa da. Autobusen irte-
erako ordua izena eman
ondotik jakinaraziko da.
Hori bai, autobusak tar-
teka aterako dira, bisi-
ta ezberdinak egiteko
denbora emanez eta de-
nak batera ez suerta-
tzeko. Lodosan, Perón
kontserba fabrika bisi-
tatuko dute. Batzuk fa-
brika ikusten duten bi-
tartean, bertzeek txan-
pinoiak, zainzuriak eta
piperrak egiten dituzten
landak ikusiko dituzte
eta bertzeek piperrak
ikatzeko labean nola
erretzen dituzten, on-
dotik zuritu eta latatan
sartzen ikusiko dute.
Nahi duenak pikillo-pi-
per, zainzuri, txanpinoi
eta bertze barazki-kon-
tserbak prezio onean
erosteko modua ere iza-
nen du.

Lodosatik Lizarrara-
ko bidea hartuko dute,
14:30ean bazkari ede-
rra izanen baitute Ven-
ta Larrion jatetxean. Me-
nua, ganba eta baraz-
kitxo-budina, otarrainx-
kak plantxan, barazki-
menestra, ahate uri-
neztatua, cava kopa, tar-
ta izozkiarekin, ura, ar-
doak, kafeak eta likore
arruntak izanen dituzte
aukeran.

Maite duzuna zaintzen duzu

Maite ezazu
zeure burua

Ikasi idazten eta irakurtzen zeure hizkuntzaz

Alfabetazaitzez euskaraz
Matrikulatu

Antolatzaileak: Nafarroako udaltzaile euskaraz zerbitzuak

Logotipoak:

Helaridaleko telefonoa: 943 430 500
Bazkarietako telefonoa: 943 437 796
Buztapa telefonoa: 943 432 471
Gatzakileko telefonoa: 943 416 716

GOIZUETA

Zabala eta Goikoetxeari eman zaio Etxebizitza Babestuak egitea

Enpresa honen proiektuaren zain daude orain Herriko Etxean

Esteban AROTZENA

Zabala eta Goikoe-
txea enpresari eman
zaio Plazenerako alorre-
an babes ofizialeko 12
etxebizitza eraikitze-
ko lana. Udalak abuztua-
ren 25eko batzarrean
hartu zuen erabakia.
Orain, behin betiko
proiektua aurkezteko hi-
labeteko epea zabaldu
zen, eta proiektu hori
Udalak onartzen badu,
Nafarroako Gobernu-
ari bidali beharko zaio,
obraren behin behine-

ko kalifikazioa eman die-
zaion.

Aipatutako izapide
edo tramite hauek de-
nak egitean, hilabete ba-
ten barrenean hasi be-
harko ditu obrak Zaba-
la eta Goikoetxeak, bai-
na horren aurretik etxe-
bizitza hauetako baten
jabe izatearen interesa
dutenei izena emateko
deia luzatuko die en-
presak berak. Obrak
hasien direnetik aurre-
ra, urte terdiko epea izan-
nen dute etxebizitzak
bukatzeko.



ARGAZKIA: ANGEL SALABERRIA

Oier Apezetxea txapeldun Alkizan

Oier Apezetxea pilotari kadeteak Alkizako Torneoko finala irabazi zuen iraila-
ren 10ean. Esnaola zuen lagun eta Arakistain-Urbiondo azpeitiarrak kontra.

Eskolan lanak

Eskolan eta bertako
frontoian egin beharre-
ko hainbat konponketa-
ren gastuei aurre egite-
ko 42.827 euroko diru-
laguntza eman dio Uda-
lari Nafarroako Gober-
nuko Hezkuntza Depar-
tamentuak. Argindarra-
ren instalazioaren zati
bat eta eskola-bueltako
sarea berritu dira, bes-
teak beste.

Lehenengo bake epaileak

Jexux Etxegia eta
Juanita San Miguelek
beteko dituzte ondo-
rengo urteetan ere ba-
ke epailearen eta bere
ordezkoaren postuak.
Jendea aurkezteko deial-
dia denbora luzez egon
da zabalik, baina inork
ere izenik eman ez due-
nez, lehenengoek jarrai-
tuko dute, esan bezala.

Arkupeak elkarteak Yoga ikastaroa antolatu du aurten ere

Iazko ikasturteko
arrakasta handiaren on-
dotik, aurten goi-
urrerara ere yoga ikas-
taroa egiteko asmoa du
Arkupeak jubilatuen el-
karteak. Horretarako
izen emateko epea hil
honen 25a artekoa da.

ARESO

Ikasle eta irakasle bana gutxiagorekin hasi da ikasturtea

Ehiztariak ere hasiak dira denboraldia prestatzen

Juana Mari SAIZAR

Ikasturteari hasiera
egun bat beranduago
eman zitzaion, larrial-
dietarako atearen kon-
ponketen ondorioz. Gu-
raso eta irakasleen la-
guntzari esker, gela gar-
bitzeko lanak bukatu zi-
tuzten. Aurten ikasle bat
gutxiago izanen da eta
lan erdiko irakaslea ken-
du dutenez, irakaslegoa

ere jeitsi egin da eta bi
gelditu dira.

Ikuskariarekin bilera
eskatu zuten irakasle-
goa mantentzeko, bai-
na oraindik ezezkoaren
zergatia jakin gabe da-
go.

Ehiza denboraldia

Ehiztariak denboral-
dirako prestatzen ari di-

ra eta Usoa elkarteak
postuak berritzeko deial-
dia eta zerrenda zabal-
du ditu eta urriaren 1a
baino lehen bukatuak
eta ingurua txukunduta
egon behar dute.

Mikel Olazabal

Mikel Olazabal pilo-
taria Joxean Tolosa txap-
elketan parte hartzen
ari da eta aurreko igan-



ARGAZKIA: JUANA M

Larrialdietako atearen konponketa lanen ondorioz
egun bat beranduago hasi da aurten herriko esko-
lako ikasturtea. Iaz baino ikasle bat gutxiago izan-
go eta egun erdiz ari zen irakaslea kendu dute.

dean jokatu zuen fina-
la. Hau idazterakoan
oraindik jokatzekoa zen

partida eta hurrengoan
emango dugu horren
berri.



20
06

Sanmiguelak
irailaren 28tik urriaren 2ra

IGANTZI



Herriz herri,
bestaz besta





**CONSTRUCCIONES MECANICAS
BERRIZTUN S.L.**

- Makinaria erakuntza
- Moldaketa eta despiezea
- Mantentimendu mekanikoa
- Torno, fresadurak, errekifikadoreak

Igantziako Bentak • Telf.: 948 637 572 • Faxa: 948 637 508



**SEGUROS LAGUN ARO
ASEGURUAK**
Oskar Txoperena

Klase guztietako aseguruak
hemian bertan!

Tel-Faxa: 948 637 236 • Mug.: 610 507 579
Baratzondo, 1 • IGANTZI



bortzIRUDI

BORTZIRIETAKO • FOTOKOPISTEGIA • INPRIMATEGIA

- KARTELAK • KAMISETAK • BUSERAK • TXOTXERAK
- FOTOKOPIA DIGITALAK • KOLORATIAK • TIRU-BELTZIAK • PLANOAK
- ENKADREKATZIOAK • PLASTIFIKAZIOAK • PEPEKATZIOAK • BUREKO MATERIALA
- DISEÑU GRAFIKOA • LOGOTIPOAK • ENKOTATZIOAK • IMPRENTA

PARA ALAI ETA BESTA IN,
SANMIGELAK URTEAN BEHIN

• ORA IGANTZIKO BESTAK !!!

Ezferara 26 behea • BERA • Tel-Fax.: 948 63 15 21

Carlos Txoperena
mendi garbiketak eta landaketak



Argi, Pasa
Sanmigelak!!

Tel: 948 637 477
637 466 124
LESAKA

**LA VILLA
JATETXEA**



Urte osoan, ortziral,
larunbat eta igandetan afariak

ongi pasa bestak!

Telf.: 948 63 72 90 • IGANTZI

Sanmigelak

irailaren 28tik urriaren 2ra

IGANTZI



Irailak 23 Larunbata

- 11:00etan: Nesken pala txapelketaren finalak.
16:00etan: Plater tiraketa eta ondotik berendua.
20:00etan: Igantziko Dantzarien emanaldia.

Irailak 24 Igandea

- 10:00etan: Karrika buelta herriko txistulariekin.
11:30ean: Igantziko III. gazta lehiaketa.
12:00etan: Haurren Herri-Kirol Erakustaldia (Arantza, Berroeta eta Igantzi).
16:30ean: XXVII. Artzai zakur lehiaketa. Meakandiko zelaian.
19:30ean: Sagardo besta eta gazta degustazioa.

Irailak 28 Ortzeguna Bezpera eguna

- 17:00etan: Mus eta partxis txapelketa.
20:00etan: Altxaferoa eta ezkil jotzea, Incansables txarangarekin. Ondotik, karrika buelta kankailu eta buruhandiekin.
22:00etatik aitzinera: Dantzaldia IRATS Taldearekin.

Irailak 29 Ortzirala San Migel eguna

- 11:00etan: Karrika buelta herriko txistulari eta ezpatadantzarietara.
11:30ean: Udalbatza, ezpatadantzari eta txistulariekin batera, herriko ikurraren ondotik Herriko Etxetik elizara joanen da. Ondotik, Meza nagusia San Migelen omenez herriko abesbatzak kantatua.
12:30ean: Bandera-Arbola eta ezpatadantzariak.
17:30ean: Gazte eta afizionatuen arteko pilota partidak.
19:30ean: Dantza-jazz emanaldia.
20:00etatik 22:00etara: KEZENGE perkusio taldea.
0:00etatik aitzinera: Diska jartzailea.



Gazte, haur nahiz helduek, guziek izanen dute aurtengo Sanmigeletan parte hartzeko eta ongi pasatzeko aukerarik.

Irailak 30 Larunbata

Goizean: Karrika buelta herriko txistulari eta ezpatadantzariekin.

10:00etan: Herriko haurren VIII. pilota txapelketaren finalak.

17:30ean: Karrika buelta kankailu eta buruhandiek.

19:00etan: Herri Kirolak:

- Aizkolari gazteen III. San Migel Saria.
- Herriarteko Erakustaldia.

22:30etik aitzinera: Kontzertua: **KANKA, SIXTY SEXERS** eta **HIMEN** taldeak.

Urriak 1 Igandea Ezkonduen eguna

10:00etan: Karrika buelta gaiteroekin.

12:00etan: Toka Txapelketa.

17:30ean: Betizuak.

19:00etan: Bertso pilota. Peñagarikano eta Irazu bertsolariekin.

21:30ean: Herriko dantzak (muxikoak, jotak...).

0:00etan: Dantzaldia **TXUTXIN IBÁÑEZ** eta **JESUS TAPIZ**ekin.

Urriak 2 Astelehena Haurren eguna

Goizean: Karrika buelta txistulariekin.

10:30etik 12:00etara: Haurrentzat jokuak eta gaztelu haizatuak.

12:00etan: Betizuak.

14:00etan: Herri bazkaria. Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso bertsolariekin.

15:30etik 18:00etara: Haurrentzat jokuak eta gaztelu haizatuak. Ondotik berendua.

19:00etan: Betizuak, Pasai txarangak lagundurik.

20:00etatik 22:00etara eta 00:00etatik 02:00etara: Dantzaldia **MODESTO**ekin.

i gantziko h arrobiak

Besta ederrak pasall!

948 637 288 • IGANTZI

MENDI LANAK

Zerrakurak • Pikete salmenta
Landaketa eta garbiketa

ETXARTE - IGANTZI

630 943 589 • 948 637 567 (21:00etatik aitzin)

OKILA
zurgindegia

- tarimak, leihoak, ateak, eskalerrak...
- obretako lanak orokorrean

Lander Sein

Mikel Arburua



On egin janak eta kalterik ez edanak!

948 637 249 • Piedade gaina z/g
IGANTZI



Jose Canabal

Instalazio elektrikoak
orokorrean

**ARGIZTAPENA
MATXURAK • ALARMAS**

ONGI PASA BESTAK!!

666 57 58 99 • 948 637 541
IGANTZI

josecanabal@tiscali.es

Clinica Dental
Iruita - Rubio

**ODONTOLOGIA
ORTODONTZIA
INPLANTEAK**

Dr. Jose Luis Iruita (Kol. 240)

Dr. Bihotza Rubio (Kol. 241)

odontologia medikuak

Rx. panoramikoa - periodontzia
Kirurgia - endodontzia - protesiak

ODONTOPEDIATRIA - PADI

ortopedia maxiliarra - umeak eta helduak

Leitza

Marcel Lasa, 7 - 2. ed.

948 610 713

Donostia

Donostia, 10 - 1. ed.

948 450 267

JOSE AGERRE
pinturak



PINTURA LANAK OROKORREAN

Kanpo eta barneko pintura
Barnizatze eta lakatzak
Parket Flotatzaila jartzen dugu

618 221 528
948 638 144
IGANTZIKO BENTAK



TALLERES BERRIZAUN
GASOLINERA LESAKA
IMANOL TELLETXEA ZOZAYA

Tel. 63 74 60 31770 Lesaka (NAVARRE)

Gas-olioa etkez etxe banatzen da
Kotxe berri eta zaharren salmenta
BESTA EDERRAK PASA !!



frexka
zaitez gurekin!!

ALDIZKARIAK · KATALOGOAK
BOLETOAK · INPRIMAKIAK
TXARTELAK · EGUTEGIAK
ARGITALPENAK · FOILETOAK
LIBURUAK · KARTELAK
LOGOTIPOAK...

KULTURKARI
publizitatea zerbitzuak

Andutzeta 12, 31760 ETXALAR
Tfnak: (0034) 948 63 54 58
www.ttqi.net · kulturkari@ttqi.net

ATM S.A.



AUXILIAR DE
TRANSFORMADOS
METAICOS S.A

- Txapa mozketa eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera.
- Enbalaketa elementuak eta flejeak.
- Garraioak zintak eta mahaia
- Mantenu rodilloak

Ongi pasa bestak!!

Igantzikoko bentak
948 63 74 11

TALOTXA
IGANTZI ERAIKUNTZAK,



ongi pasa bestak!

Piedadeko auzoa, 8 - 31790 Igantzi (Nafarroa)
608 20 21 26 / 618 90 18




Igantzikoko Udalak
besta onak
opa dizkizue
Igantziar eta bisitari
guztiei

FH proiektua etorkizuna gaur da

Zer da FH proiektua?

Gizarte guztiak aldatzen dira, adibidez, egun haue-
tan lehendabiziko ordena-
gailuaren 25. urteurrena ospa-
tzen ari gara. Gaur egun ezin
dugu mundua ordenagailu edo
internetik gabe imajinatu eta as-
makuntza hori egin zenetik hamai-
ka enpresa sortu dira. Horrela bada,
FH proiektuak garapen bidean
dauden sektoreetako enpresa-ideiak
dituzten pertsona ekintzaileak la-
gundu nahi ditu, pertsona edo en-
presen eskaera berriei erantzunak
ematen dizkieten pertsonak.

Garapen bidean dauden sekto- reetaz ari zara, baina... zeintzuk dira zehazki enpresa berriak sor- tzeiko potentziala duten sektore horiek?

Gaur egun asko dira garatzeko bi-
dean daudenekotzat hartzen diren
sektoreak, eta Nafarroan, sektore
hauetan enpresak sortzeko bada
nahikoa merkatu. Adibide zehatzak
jartzearen, teknologia berriei gain
aipa daitezke aisialdiaren sektorea,
pertsonentzako zerbitzuekin lotuta-
koak, haurrentzako laguntza, kultur
sektorea, ingurumen zerbitzuak, en-
presen lehiakortasuna hobetzeko
zerbitzuak...

FH proiektutik, enpresa berriak abian
jarri edo lehenagotik zeuden en-
presak beste modu batean bidera-
tu nahi dituzten pertsona saiatuei
informazioa eskaintzen diegu.

**Pertsona ekintzaile edo saiatuak
aholkatzeko proiektu honetan,
zein erakunde hartzen du parte?**
Nafarroako Gobernuak Nafarroako
Enplegu Zerbitzuaren eta CEINen
bitartez, ANEL eta CEDERNA-GA-
RALURen laguntzarekin.

Nortzuk izan daitezke FH proiektu- aren onuradunak?

Enpresa ideiarene bat izanik hura
gauzatzeko laguntza behar duten
pertsonetatik hasita, ideia zehatzik
eduki gabe enpresa berri bat sor-
tzeiko asmoa dutenak, edota, bi urte
baino gutxiago izanik garapene-
ko bidean dauden sektoreekin lotu-
tako proiektuak hasi nahi dituzten
enpresetarako, guztiak parte har
dezakete proiektu honetan.

Zeintzuk dira zehazki pertsona ekintzaile hauei ematen dizkio- zuen zerbitzuak?

Hasteko, aipatu zerbitzuak ibilbide
oso bat dakar berekin eta interesa
duen edozein pertsona edo bi urte-
ko antzinasuna duen edozein en-
presa murgil daiteke, dituen behar
eta helburuen arabera.

Lehenik, enpresa sortzeko modu,
eraketa tramite, dirulaguntza, zerga
eta halako gaien inguruko infor-
mazio zerbitzua ematen dugu.
Gehien eskatzen diguten beste zer-
bitzuetako bat, enpresako plana egi-
teko laguntza izaten da. 2005etik
garapeneko bidean dauden enpre-
sa hauekin lotutako 70 enpresako
plan inguru egin ditugu. Askotan es-
katzen duten zerbitzua da, perso-
na ekintzaileak duen ideiarene bide-
ragarritasuna aztertzei aukera
ematen baitu.

Hirugarrenik, enpresaren sorrerako
fase guztietan pertsona ekintzaile e-
ta saiatuei asko interesatzen zaiz-
kien gaiekin lotutako prestakuntza
ibilbide osotua diseinatu dugu.
Zerbitzu guzti hauek doan eskain-
tzen ditugu.

**Aurkezten zaizuen proiektua ga-
rapeneko bidean dauden sekto-
re baten barnean kokatzeaz gain**

berritzailea ere baldin bada, FH proiektuak zerbitzu gehiago ere eskaintzen ditu?

Hain zuzen ere, lehen aipatutako
zerbitzuak proiektu guztiei eskain-
tzen dizkiogu. Baina proiektua ber-
ritzailea bada, 18.000€ bitarteko
finantzaketa ere lor dezake perso-
na edo talde ekintzaileak, abalik ga-
be eta %0ko interesarekin.

Proiektuak, berritzailea izateaz gain
hazkunde potentziala baldin badu,
bideragarritasun planetik datozen
hazkunde eta fakturazio zenbakiak
altuak baldin badira, laguntza be-
rezia ematen diogu komunikazio pla-
na eta merkaturatze plana eginez
eta, honetaz gain, negozioa abian
jartzeko beharrezkoak direla irudi-
tzen bazaigu, pertsona ekintzaile-
ak eskatzen dizkigun beste zerbi-
tzuak ere ematen dizkiogu.

Momentuz, proiektuaren garape- naren inguruan zer balorazio egi- ten duzue?

2005az geroztik 120 pertsona en-
plegatzeko 58 enpresa sortzen
lagundu dugu eta pertsona ekin-
tzaileekin 400 aholku-lan inguru egin
ditugu. Hala ere, Nafarroan gara-
pen bidean dauden sektoreen ere-
muan oraindik lan handia egiteko
dagola uste dugu.

Laguntza hauek eskatzeko, nora jo
behar dute pertsona ekintzaileak?
FH proiektuan parte hartzeko inte-
resa dutenek CEIN (848 42 60 50),
ANEL (948 24 04 00) edo CEDER-
NA-GARALUR (948 62 51 22) era-
kondeekin jarri behar dute harre-
manetan, erakunde hauetatik en-
presaren eraketa eta aipatutako zer-
bitzuetan aholkatuko dieten per-
sona tekniko espezializatuak jarri-
ko dizkiete.

LEITZA

Aurrera Dantza Taldeak Txekiako Nazioarteko Jaialdian parte hartu du

Euskal talde bat jaialdi handi honetan aritu den lehen aldia da

ttipi-ttapa

Aurrera Dantza Taldeak Txekiako Valasske Mezirici hirian irailaren 14tik 17ra burutu den *Mezinardni Folklori Festival Babi Leto* izeneko Nazioarteko Folklore jaialdiaren zazpigarren edizioan parte hartu du. Beste bederatzia herrialdeetako dantza taldeek ere parte hartu dute eta leitzarrek Euskal Herriko ordezkaritza bete dute. Gainera, aipatzekoa da Euskal Herriko beste talderik ez dela inoiz izan jaialdi garrantzitsu honetan.

Txekian, egunero izan dituzte dantza saioak, baina hamar herrialdeetako dantzariak bildu dituzten jaialdiak hilaren 16 eta 17an izan dituzte, azken hau, Kelc hirian. Horretarako, maiatzetik egunero entsaiatzen aritu dira 26 neska-mutil eta 2 txistulari eta atabaleroa. Dantzari gazteenek 16 urte dituzte eta helduek 29. Guzira 33 lagun



UTZITAKO ARGAZKIA

Asketa abesbatzakoak emanaldiz emanaldi dabilta

Argazkian, Asketa gazte abesbatzak uztailaren 29an Xabierren eskainitako emanaldia ageri da. Leitzarrek, «Mila ahots Xabierri kantari» zikloan parte hartu zuten. Geroztik, irailaren 10ean Asketa Txikiko haurrek ere kantatu dute Xabierren. Asketa Gazte abesbatza 30 neska-mutilek eta Asketa Txikin 35 haurrek hartzen dute parte, Juan Bautista Irazoki zuzendariaren gidaritzapean. Etorkizunera begira, txikiek irailaren 24tik 30era Aralarren ospatuko den bederatziaurrenean parte hartuko dute. Gazteek hurrengo emanaldia irailaren 30ean egingen dute Irantzunb, Mendialdeko Abesbatzen Topaketaren barrenean hain zuzen ere.

joan dira Txekiara. Jonaerakoan bi egun eman zituzten autobusean eta itzulerakoan beste horrenbeste ematen dituzte.

Aurrera garaipenarekin hasi da

Aurrera futbol taldeak garaipenarekin ekin dio 2006-07 denboral-

diari. Preferentera igozteko helburua izanzen dute. Azken bi urteetan promozioa jokatu baina ez dute lortu. Ea hiru garrenean balekoa den!

ARANO



Gimnastika ikastaroko lagunak iaz

Gimnasia ikasturtea hasi dute Kontzejuko Ganbaran

Kontxi KLABER

Oporraldia pasa ondorean, astelehen honetan, irailaren 18an hasiera eman diote gimnasia taldekoek aurtengo ikasturteari. Astean bi egunez, astelehen eta ostegunetan arratsaldeko 19:30etan elkartuko dira kontzejuko ganbaran hamar batlagun, beren osasuna zaintzeko helburuarekin batik bat.

Kontzeju taberna irekita

Aste beteko oporradia eta, berriz taberna ireki dute Emaiz eta Enkarnik. Irailak 4an itxi zuten kontzeju taberna eta 13an ireki.

txokoberri
Aluminioan espezializatuak
• Aroztegi Metalikoa (lelhoak, ateak, barandak,...)
• Parket
Eneko eta Alfredo / Donamaria / Nafarroa Tel: 618 881 924

luis cestau baraibar arkitekto teknika leitza 607204485 lucasba msn.com

gaztelu scl
iturgintza
kalefakzioa • saneamendua • gasa
© 948 510086 / 510156 fax: 948 610856 LEITZA

Ark_b arkitektura bulegoa
Celia Lana Ranz
Huarte Gotzai 7 - 31880 Leitza - 645008478 tel
Eraikuntza Hirigintza Udai-aholkularitza

ZERBITZUAK

Zaborrak murrizten laguntzeko kanpaina abiatu da eskualdean

Hainbat aholku emanez, kartelak banatu dira dendetan



ttipi-ttapa

«Lagundu zaborrak murrizten» izeneko kanpaina hasi dute Bortziritako Hiri Hondakinen Mankomunitateak, Baztango Udalak eta Maierrekako Zerbitzu Orokorren Mankomunitateak. Izan ere, erakunde hauetatik jakinarazi dutenez, «guk guztiok ohartu gabe sortzen dugun zabor-kopurua urtetik urtera handiagoa da eta horrek, bistan dena, ondorio kaltegarri ugari sortzen ditu gure ingurumenean eta ekonomian». Beraz, egotia horren erantzunkizuna guztiona ere badeenez, premiazkoa da arazo honetaz kontzientzia hartzea. Honela, zaborra murrizten laguntzeko zenbait aholku ematen dituzte: erosketak egitera norbere poltsa, kapazo edo erosketat-orgatxoarekin joatea, neurririk handiena duten enbaseak aukeratzea, bildukin gutxien dituzten produktuak aukeratzea, aluminio-paperearen erabilera murriztea eta bertze bildukin edo enbaseak aukeratzea, erabili eta botatzeko produktuen erabilera murriztea eta pozoitsu eta kutsagarrien erabilera gutxitzea aipatzen dituzte, bertzeak bertze.

Azken finean, erosketetara goazenean «ez itsutzea, zentzuz kontsumitzea eta alferrik galtzea» baztertzea gomendatzen dute.

Elizondoⁿ 2006ko irailaren 23 eta 24an
23 y 24 de Septiembre de 2006

19

pirineotako behi-arrazako
aukerako azienda
lehiaketa
enkante nacionala

concurso
subasta nacional
de ganado selecto
de raza vacuna **pirenaica**

BAZTAN

Piriniotako behien lehiaketa eta enkantea egingen dira aste hondar honetan

Igande eguerdian izanen da sariketa eta enkantea Elizondoko Merkatu Plaza inguruan

Maite OTEIZA

Asteburu honetan, Baztango Udalak eta ASPINAK antolatutako, Piriniar arrazako behien lehiaketa-enkantea egingen da Elizondon. Aurtengoan 19. edizioa den honetan, inguruko nekazariak gain, Nafarroa, Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako nekazariak ere parte hartuko dute eta 350 behi gorri biltzea espero da.

Irailaren 23an, larunbat goizean, azien da-sartzea egingen da Elizondoko Merkatuko Plazan eta arratsaldean, behi gorriak aztertu eta sailkatu egingen dituzte. Feria honen inguruan, hainbat ekitaldi antolatuta dira eta larunbat arratsaldeko 18:00etan profesionalen arteko pilota partidak jokatuko dira Baztan pilotalekuan. Eskualdeko artisauen produktuen azoka egingen da egun osoan.

Igandean, 11:00etan Nafarroako aratzekiarren dastaketa izanen da. Eguerdian azienda



ARGAZKIA: ONDIKOL

Behi gorri ederrak ikusiko dira aste hondarrean Elizondon.

lehiaketaren sariketa eta enkante edo subasta egingen dira Elizondoko Merkatu Plazaren inguruan Ondotik, ASPINAK aratxe bat zozketatuko du.

Feriak sortzen dituen gastuak ordaintzeko, Nafarroako Gobernuak eta zenbat babesle pribatuen dirulaguntza lortu da.

Iruritarrak Nafarroako pilota selekzioan

Baztan eta Malerrekan jokatzen den laxoa pilota jokoak badu bere adiskidea Valentzian. Hango pilota jokoak ezaugarri berdinak ditu arauak, *rayak*, kontaketa modua... baina badira hiru diferentzia:

- Jokalari kopurua: bortz bortzen kontra (laxoan lau lauren kontra).
- Joko eremuak: trapezio forma du. Botarria dagoen lekuan zabalagoa da frontisa baino. (Laxoan joko eremuak lauki zuzena).
- Eskuz aritzen da, erremintarik gabe. (Hemen laxoa edo guantea erabiltzen da).

Hilaren 17an Valentzia hiriburuko udaletxeko plazan Nafarroako selekzioak (Iruritako Gorri Urtasun, Patxi eta Unai Barberena, Jauntzaraseko Iñaki Barbera eta Gartzarongo Oier Legarra). Partida Valentziako telebistak emititu du. Partida jokatzeke, egun horretan hiriburuko trafikoa aldatzeko izanen ditu.

Orain dela hiru aste Valentziako telebista honat hurbildu zen hementxo jokalariei erreportajea egitera, entrenamenduak, jokalarien bizimodua: kirol izarren modura, alegia.

Oronoz-Mugairi eta Arraiozko apez hil da

Vicente Sanzberro Alberdi apez hil zen irailaren 11n, 77 urte zituela. Almandozen sortua, gan den urtean 50 urte egin zituen apezgoan. Apez izateaz gain, Baztango historia eta genealogiei buruzko ikerketak egin zituen.

ANTXITONEA
Trinketea

Jatetxea - Ostalua
Hotela - Trinketea

Menu Bereziak

Braulio Irade karkika
ELIZONDO

Tel: 948 581 807 - 948 581 853

Maderas GOMEN

Tel: 948 580 645
Zaldubia industrialdea
IRURITA

- Era guzietako ateak, janbak eta regruesoak
- Egur idorrak: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izelak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinua...
- Tablerokoak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

BAZTAN

Anizko Arrosarioko Amabirjin bestak irailaren 30etik urriaren 2ra

Egun haundian herri kirolak izanen dira arratsaldez

Launbeta 30 BEZPERA

11:00etan: Ezkil Jo-tziak, Altxaferuak eta Xistulariak (Antonio Elizalderen omenez).

11:30ean: Haur Jokak.

12:00etan: Mus Txapelketa.

14:00etan: Haurrendako bazkarie.

15:30ean: Gaztelu puzgarriak.

18:00etan: Txokolate jatia.

19:00etan: Dantzaldie MIKEL SALABERRI-rekin.

20:45ean: Baztan-Zopak.

Ondotik: dantzaldia MIKEL SALABERRI-rekin. Akitzeko Zinger Jatea.

Igendia 1

ARROSARIOKO AMA BIRJINAREN EGUNE

11:00etan: Xistulariekin Kalejira.

12:00etan: Meza Nau-sie.

13:00etan: Otordue.



ARGAZKIA: MAITANE MARITORENAK UTZIA

Argazkian 2004ko xinger jatia ageri da, Joxe Angel akordiolariarekin. **Bezperako** dantzaldia akitzeko modu ederra da. **Aurten**, Mikel Salaberrik jarriko du musika.

17:30ean: Herri-kirolak (Konbinatua). Basaburua-Arantza haurrak.

18:00etan: Aizkora apostue. Garikoitzeta Oihan Larretxea, Bit-tor Elizagoien...

19:30ean: Kantaldie, GARTXOT eta EDORTA-rekin. Akabailan afarie.

Astelehena 2 ADISKIDETASUN

EGUNE

11:00etan: Mus Txapelketa.

14:00etan: Zikiro jatia, JOXE ANGELeK alaituko du.

17:00etan: Ginkana.

21:00etan: Zinger ja-

FLASH

Udan ur eskasia Oronoz- Mugairin

Oronoz-Mugairin batez ere udako hilabeteetan izaten den ur eskasia moldatzeko eguzki-planken indarrarekin ibiliko den bonba elektrikoa jarriko da Solborroko iturrian. Lanen aurrekontua 24.585 eurokoa da eta auzolanean egingen da. Horretaz gain, Erro-tondoko errotako iturriko ura erabili ahal izateko eskaria egin dio Balleko Udalak Espainiako Iparraldeko Ur-konfederazioari.

Etxeko hondakin berezien bilketa

urriaren 7an, larunbata, etxeko hondakin berezien bilketa honako herri eta tenoretan izanen da: Elizondon 9:00etatik 12:00etara; Arizkun 12:10etik 12:45era; Erratzun 12:55etik 13:30era; Amaiurrera 13:40etik 14:15era; Azpilkuetan 14:25etik 15:00etara. Emausko Traperoen telefono zenbakia 948 451 979 da.

Giltxaurdi Kirolddegiko kudeaketa

Hurrengo 5 urteotan behin behineko enpresa elkarte batek hartu du bere gain gestioa (Sedena, Serdepor, Hydra eta Prudencio Indurain enpresen artean osatutako taldeak). Urtero 63.960 euro kobratuko ditu talde honek kiroldegiko martxa eramateagatik. Orain arte Gesport arduratzen zen.

Lekarozko frontoia

Arakan enpresak egingen du Lekarozko Txiki-Polit frontoiaren moldaketa lana, 83.000 euroren truke.

Pierresenea
OSTATU · JATETXEA
Jaki tipikoak · Etxeko giroa
Iturriatz auzoa · Tfnoa: 948 592 043
ORONÓZ · MUGAIRI

egoi bardot obregozo arkitektoa
679849789 elizondo · braulio liriarte 33, 1ºD · 31700
948250371 Iruñea · irabeko monastegia 62, 4ºC · 31011

ERRETEGIA ORDOKI LIKOREAK
Parrilan egindako haragi eta arrainak
Tel: 948 453 410 Fax: 948 453 378 · ARIZKUN

URDAZUBI

Berroberria eta Alkerdiko lezeak bisitatu dituzte

Baztango Historiarurreko jardunaldien barrenean

Fanny eta Aitor

Joan den astean, 2006ko irailaren 6tik 9-ra bitartean, Historiaurreari buruzko II. Jardunaldiak izan ziren Baztanen eta Urdazubiko Alkerdi eta Berroberriako lezeak bisitatzeko eman zieten bukaera. Hitzaldia emateaz aparte, Ignacio Barandiaran Maeztuk, gidatu zuen Alkerdi eta Berroberriako lezeetara egindako bisitaldiak.

Lezeetako indusketak aspaldian geldirik dauden arren, urte eta erdiren buruan berriz hartuko omen dituzte arkeologia alorreko teknologia berrienak erabiliz, horrez gain, Barandiaranek, bi urte ba-

rru Alkerdiko lezeei buruzko liburu bat argitaratzeko asmoa du.

Frontoi berria

Frontoi berria ari dira altxatzen eta espero da udazkenerako akitua izatea. 1924an gure arbasoek ezker pareta eraiki zuten herriko plazan, hasiera batean estali gabe zegoena, eta beranduago estali zutena. Orain, laurogei urte beranduago, bertze bat eraikitzen ari dira monastegiaren gibleko aldean, heldu den urtean zaharra botatzeko asmoz, eta haren lekuan plaza pollit bat egiteko. Frontoi berriko bidean eta frontoian bertan komunak eginen dituzte eta frontoiko komunetan duxak ere izanen dira. Herriko biltegia ere egin nahi dute frontoi ondoan.



UTZITAKO ARGAZKIA

Euskal Herriko Unibertsitateko historiaurreko katedradunak, Ignacio Barandiaran Maeztuk, gidatu zuen Alkerdi eta Berroberriako lezeetara egindako bisitaldiak.



ARGAZKIA: AITOR OLLO

Urdazubiko frontoi berriaren eraikuntza lanak. Udazkenerako bukatua izatea espero da. Pilotaleku berri honek komunak eta duxak ere izanen ditu eta herriko biltegia egin nahi dute frontonaren ondoan.

Ahatekietan adituak eta arituak

Martiko Poi Zainak, s/n.
31780 Ibañeta, Nafarroa.
Tel: 948 625016
Fax: 948 625036
www.martiko.com

Martikorekin
zu zeu
sukaldari.

MARKA GUZIEK KONPONKETA

Banarta, 2 - Alkaiaga Industrialdia
LESAKA (sarrera Beratik)
Tel: 948 625 555 - Faxa: 948 625 505

SARA

Erretratuek urteroko ateraldia egingen dute irailaren 23an

Landesetako Pouillon-en arnotegia bisitatu eta Cagnotten bazkalduko dute

Laetitia eta Sandrine

Erretratuen urteroko ateraldia irailaren 23an, larunbatarekin, iraganen da, Landesetan.

Lehenik, Pouillon-go herrian, arnotegi bat bisitatuko dute eta nahi dutenek erosketak egingen ahalko dituzte. Ondoren, Cagnotte herrian, "Beleslou" jatetxean bazkalduko dute.

14:30ean itzultzeko bidea harturik, kolazio batentzat geldituko dira, Sarako herrirat 17:30ak aldean ailegatzeko.

Dantza taldea

Joan den irailaren 3an, igandearekin, dantza taldeko dantzari haundienak "rafting" ateraldia egin zuten Bidarraien. Egun goxoa pasatu zuten, ateraldia



ARTXIBOKOA

Urtean hainbat ekitaldi antolatzen ditu **Beti Gazte** erretratuen elkarteak.

antolatua izan zen beren lana eskertzeko.

Lur berri zahar-berritua

Herriak lehenagoko Lur berri gela zaharberritu du. Gela, bilkurentzat, erakusketentzat eta

beste okasione desberdinentzat baliatzen ahal da. Besta astelehenez estrenaldia iragan zen hautetsiek.

Frantziako xapeldun

Pilotan, esku huskako

Frantziako txapelketaren finalean lau saratar aritu ziren, xori mailan: Mathieu Gachen eta Pello Etxeberrigaraiek 30 eta 23 irabazi zieten Joan Agesta eta Daniel Calvet-i. Zorionak denei!

ZUGARRAMURDI

Lezeetako apaindura argiztapen berria inauguratu dute

t tipi-ttapa

